

KMTX19
ERRADIOGRAFIA

KOMANTXE KONPARTSA,

BILBO MAILAKO JAI ESPARRU HERRIKOIAK,

OKUPAZIOA TA AUTOGESTIOAREN

MUGIMENDUA

DIAGNOSTIKO MILITANTE BAT

2019KO URRIA

AURKIBIDEA

Sarrera

Erradiografiaren zergatiaz eta metodologiaren azalpenak 2

A profila

Konpartsaren sortzaileak eta eskarmentuko konpartsakideak..... 6

B profila

Konpartsakide berriak eta azken 5 urteetakoak..... 10

C profila

Okupazio eta Autogestio Mugimenduko eragileak..... 13

Bilbo Mailako Jai Esparru Herrikoiei kritika..... 13

KMTX vs Okupazio eta Autogestio Mugimendua..... 16

Harremanetarako aukerak..... 18

Eztabaidatzeko

Lantaldeak ateratako ondorio batzuk..... 21

Erradiografiaren zergatiaz eta metodologiaren azalpenak

ZERGATIK DIAGNOSTIKO BAT?

Badira 10 eta bat urte Komantxe konpartsa sortu zenetik. Ibilbide honetan eta urte hauetan zehar, lagun ugari elkartu eta joan dira gure aldamenetik, konpartsa-aren eta okupazio mugimenduaren arteko harremana bidean garatu eta aldatu delarik.

BOM-a (Bilboko Okupazio Mugimendua) bertan behera geratu zenetik, eta komantxe konpartsa-aren subjektu sortzailea hura izanik, konpartsa bide berean jarraitu du, autogestioan eta okupazioan oinarritutako proiektuak defendatuz, baliabideak sortuz eta kolektibizatuz. Guk behintzat horrela izan dela uste dugu.

Oraingo honetan, konpartsa-aren eta okupazio-autogestio mugimenduaren (hurrengoetan OAM) arteko harremana aztertu nahian, berau osatzen duten eragile eta norbanakoen parte hartzearen bila joan gara, hara eta hona. Konpartsa aurrera ateratzen dugunok argi daukagu, honez gero, lan guzti hau gure borondatez eta ehunaka kideren laguntzari esker ateratzen dela aurrera. Bestalde, 2018ko azaroaren asanblada orokorrean adostu bezala, garrantzizkoa ikusi dugu harreman hori aztertzea, **konpartsa sortu zen momentuko helburuak eta funtzioak betetzen diren, beharrezkoa ikusten den eta izateko arrazoiek indarrean jarraitzen duten hausnartzeko**. Ez gara inondik inora katastrofistak honen inguruan, baina konpartsa aurrera ateratzea lan handia denez (Bilboko santomasak, ihauteriak, Aste Nagusia, batzordeak, BK-etako Jai batzordean 4 urtez egon beharra, gure lantalde eta dinamika propioak...) eta gogaikarriak diren zereginak egitearen bidean pertsona ugari erretzen direla ikusita (azken urteetan konpartsa-aren sortzaileetako 3/4 utzi dute konpartsa), lan hau benetan beharrezkoa eta

onurazkoa den jakin nahi dugu. Konpartsakideon ikuspuntutik onuragarria dela deritzogu, noski, bestela ez genuke hainbeste indar eta gogo jarriko proiektu honeta, baina gure ikuspuntutik haratago, **politikoki konpartsak eragina duen jakin nahi dugu ere**. Okupazioa eta autogestioaren konpartsa izaten jarraitzeko arrazoia duen jakiteko, eta hala bada **norantz bideratuko dugun zehazteko jarri dugu martxan diagnostiko hau**.

Beraz, irudi orokorra lortzeko, burutuko ditugun **elkarrizketa moduko asanbladetan parte hartzera gonbidatu ditugu konpartsakide ohi, berri eta mugimenduko kideak**.

Hiru harreman profil aurreikusi ditugu, eta bakoitzaren arabera, galderak ezberdinak izan dira.

- a) Konpartsaren sortzaileak
- b) Konpartsakide berriak (azken 4-5 urteak)
- c) Okupazio mugimenduko kide eta asanbladak, puntualki laguntzen edo hurbiltzen direnak baina konpartsakideak ez direnak.

METODOLOGIAZ

2018ko azaroko asanblada orokorrean (Gernikan) lan-talde bat sortu egin zen, 6 kidek osaturik, baina berehala 5 kidetan geratu zena. Ikerketa honek lan karga handia ekarriko zuela aurreikusita, berehala jarri ginen buru-belarri plangintza bat osatzeko. **Abenduan hasi eta ia urte oso bat** eman dugu diagnostikoa bera burutzen. Adostu genituen **metodoak** izan ziren: finkoa ez zen asanblada bat, atazen egutegi bat, galdetegiak, e-mail eta asanblada bidezko gonbidapenak zein elkarrizketak, eta datuen elkartzeko kuantitatibo eta kualitatiboak.

Lan egiteko metodoa jarraituz, erradiografiaren zergatiak eta testuingurua idatzi eta gero, profilkak ekin dugu hurrengo dinamikarekin, hau da:

1. profilaren **galderak zehaztu**,
2. **parte hartzaileen** zerrenda osatu,
3. elkarrizketaren data zein **erantzunak jasotzeko epea zehaztu**,
4. **gonbidapenen helarazteaz** ziurtatu
5. elkarrizketa-taldeko eta e-mailetako **datuak jaso** eta batu.
6. **Datuok iragazi** eta tauletan metatu,
7. osteko **analisirako**.

Horrek pausuok jarraitu ditugu metodikoki hiru profiletan zehar, azkenengo fase baten, datu guztiak tauletan jasota, narrazio bateratu moduan edo aho batez berriro azaldu ahal izateko (irakurtzen ari zareten idazkia).

Galdetegiak osatzeko prozesuan, **helburu ezberdinak** jarri dizkiegu profil ezberdinei. Konpartsaren **sortzaileengandik** zera jakin nahi genuen, inoiz formalki eta kolektiboki idatzi ez dena, hau da, **konpartsaren nondik norakoak**, asmoak, gogoak, sortze-testuingurua, euren buruen proiektzioak epe ertainera eta, azken finean, **10 urte eta geroko ezinezko balorazioa**.

Bigarren profileko kideekin aldiz, asmo, gogo eta **helburu horiek modu egokian transmititu ote diren** jakin nahi genuen. Gogoak, helburuak eta asmoak berdinak izaten jarraitzen duten, gaur egungo konpartsakideon arteko harremanak nolakoak diren eta OAM-arekiko ardurak zeintzuk diren ere azaleratu nahi genuen.

Azkenik, **C profileko** galdetuen taldeak, **Jai Herrikoien eta OAM-aren egoeraren** inguruan egin behar ziguten berba, mugimenduaren barnetik. Horretaz gain konpartsaren kanpoko irudia jasotzeko balio zitzaigun, **ispiluan begiratu** bagina bezala.

A profila

Konpartsaren sortzaileak eta eskarmentuko konpartsakideak

KONPARTSAREN SORRERA

Konpartsa sortzearen **ASMOAK** zeintzuk ziren galdetzean, gehiengoak, asmoa **gure espazioa berreskuratzea** zela erantzun du. Komantxe sortu baino lehen, Bilboko Konpartsetan zegoen **hutsune hori betetzea** hain zuzen ere. "Hemen gaude!" oihukatzea. Jai eta ekintza kulturaletan, beharrezkoa zen Okupazio Mugimenduaren presentzia hori sortzea, baina OAMaren izenean zuzenean, ez aldarrikapen bat gehiago bezala. **Bestelako moduetan bizi gaitzkeela eta bizi garela erakustea**. Okupazio Mugimendua sendotzeko eta bide horretan aurrera egingeko tresnak sortu eta lortzeko sortu zela uste du beste zati handi batek.

Komantxeren **HELBURUA** OAMaren **finantziarioa** zela uste du erdiak baino gehiagok, gai ekonomiko hutsei begiratuz. Beste zati garrantzitsu batek ordea, lehen aipatu bezala, okupazioaren garrantzia aho propioz azaltzea eta **okupazioa bera jai herrikoietan ordezkaturia** izatea zuen helburu. Aipagarria da ere, BOMaren **laguntzaile** bezala ikusten zela edota OAMa **transformatzeko** beharrezko tresna izan zitekeela uste zela, ulertuta OAMak transformatzeko beharra zuela.

FUNTZIOARI dagokionez, iritzi desberdintasun gutxi dago. Aste Nagusiaren barnean OAMaren **topagune** izan behar zela uste du gehiengoak. Topagune eta erakusleihu. Aste Nagusiaren baitan OAMaren lana munduari erakutsi, berriz ere "Hemen gaude!" horrekin. Badago ere bai, **funtzio zehatzik ez** zegoela uste duena eta, nola ez, **udaletxeari kaña sartzeko** funtzioarekin sortua izan zela uste duena.

AURREIKUSPENAK

Jendeari Konpartsak gaur arte **IRAUNGO ZUELA** uste bazuen galdetzean, **gehiengoak positibo agertu da**, eta positibo ez dena agertu, iraupena planteatu ere ez zuelako egin izan da. Konpartsa sortzean zeuden gogoen erakusgarri da hau. Pertsona bakar batek soilik uste zuen konpartsak ez zuela iraungo.

Komantxeren **ETORKIZUNA**ri dagokionez ere, iraungo zuela uste zuen zati garrantzitsu batek eta besteek planteatu ere ez zutela egin erantzun dute. OAMaren erakusleho izan eta honi tresnak ematearen ideia berriz agertzen da hemen. Aipatzekoak dira ordea, bestelako erantzun batzuk. **OAMaren balizko desagertze baten kasuan adibidez, konpartsak aurrera jarraitzea posible zuela uste du batek**, hau da, Okupazio Mugimendurik gabeko okupazioaren konpartsa izatea, **aukera hau oso gogorra** izango zela aitortzen delarik, *“Mantenerla sin cimientos y sin un movimiento detrás sería muy difícil”*. **Gaztetxeekin, hasierako aurreikuspenak ez ditugula bete uste da ere.**

Jendeak ba ote zekien konpartsa aurrera eramateak zer nolako **LAN-KARGA** zekartzan? Ba, gehiengoak bai, hiru laurden inguru beste konpartsetan aritutakoak baitziren. Beste zati txikiago batek ordea, ez, eta bi pertsonak lan karga hori oraindik ez dugula ezagutzen uste dute.

Eta hari berean, hurrengo atalera pasako ginateke: izan ditugun **AKATSAK**. Jende kopuru garrantzitsu batek **lan-karga** hau eta Bilboko Konpartsen funtzionamendua ez ezagutzea akats bezala ikusi du. Baina aipagarriagoa da oraindik ere, kasu batzuetan **elkar zaindu ez izana**. Kopuru garrantzitsu batek uste du asko ikasi behar dugula zaintzen arloan, bai konpartsa barruan bitzako jarrera sexistengatik, bai ematen den “kuadrillismo exkluyenteagatik”, **“cascoviejismoagatik”** (nahiz eta Bilbo mailako konpartsa bat izan, alde zaharrean dauka “egoitza”) ala bai gaztetxeekin daukagun harremanak ez ditugulako zaindu.

Errelebo gazterik ez dagoela uste dute pertsona batzuek eta hau askok nabaritzen duten motibazio faltarekin lotzen da zuzenean. Jende inplikatu gutxi (baina beste konpartsetan baino gehiago), **BK marroi bat bezala ikustea eta irudikatzea**, Kukutzak utzitako hutsune nabaria, **gure aktibitatea soilik BKren egutegira**

mugatzea edota konpartsan ematen den konformismoa dira nabari diren akatsak, konpartsakide beteranoen ustetan. **Pertsonalismoetan** jausten garena ere uste da, funtzio zehatz batzuk, pertsona zehatz batzuetan jausten direlako epe luzean, delegatzeko zailtasuna daukagula aipatuz. Hala ere, positibotasunez betetako bi pertsonak akatsik ere ez dugula egin uste dute.

Komantxe uztean **HUTSUNEA BETETZEN SAIATU** diren galdetzean, gehiengoak ezetz esaten du. Gehien eman den erantzuna, pertsona guztiak ezberdinak, garrantzitsuak eta beharrezkoak direla da, errua inori bota gabe. Hutsunea betetzen saiatu direnen ustetan, errelebo hau era naturalean ematen da, lagunak eta inguruan ditugun jendea konpartsara erakarriz.

ORAINA

KONPARTSA SORTU ZUTENEK, BADUTE ZER EGIN gaurko Komantxen? Ezetz erantzuten dutenek orokorrean, **bizitza plan aldaketa** batengatik da, bai beste mobidetan sartuta egoteagatik ala bai **seme-alabak eduki eta etapaz aldatzeagatik (lehentasunen aldaketa)**. Oraindik konpartsan bere lekua ikusten dutenek, orokorrean, **gauza puntualetan ikusten dute euren burua**, bai *mañaneo* eta muntaian, bai *arduradun* txanda bat eginez (aste nagusiko 9 egun horietan soilik), bai arlo juridikoan laguntza emanez ala ahal duten laguntza eskainiz edota euren aktibitatea aste nagusira mugatuz.

Beste konpartsekin alderatuta dituen **BEREZITASUN**ei dagokienez, alde batetik, daukan **errollo ona** (irekia, alaia, anitza, identitate berezia) eta bestetik, filosofia bereiz ditzakegu (independientea, eztabaidatzeko zintzoa, antikapitalista). **Emakumeen presentzia indartsua** eta konpartsakideen fideltasuna aipatzen da baita ere. Programazio potente bat izatea eta kulturalki "jatorrak" izatea ere berezitasun bezala ikusten dute zenbaitek.

Azkenik, askorentzat Komantxe **BEHARREZKOA** da, AN-an lortu duen **erreferentzialtasunagatik**, iruditegi kolektiboan bere lekua egiteagatik. Okupazio Mugimendua osatzen dugunok AN-an topagunea izateko eta mugimenduari berari indarra emateko, bai eta finantzatzeko ere, konpartsa beharrezkoa ikusten dute

beste askok ANan. Aipagarria da, pertsona bakar batek GASekin (Gaztetxe eta Gazte Asanbladen Sarea) koordinatu eta hausnartzeko beharra aipatzea. Guztiz beharrezkoa ez, baina onuragarria dela uste dutenak ere badaude.

GEROA

Orokorrean konpartsaren sorreran egondakoek uste dute badutela euren **LEKUA GAURKO KMTX-n**, hori bai, ardura gutxiagokoa edota inplikazio desberdinekoa. Konpartsan tokia beti izango dutenak sentitzen dutenak badaude. Tokia nahi ez duena, jaia gorrotatzen duelako da.

NORANTZ GOAZEN galdetzean, erantzuleetako gehiengoak jakin ez dakiela esan du, ez baitago konpartsaren egunerokotasunean. Beste pertsona talde batek ilun ikusten du konpartsaren etorkizuna, bai jenderik ez dagoelako, bai motibazio faltagatik. Beraz argi dagoena da, **jende, ideia, odol eta asmo berriak beharrezkoak** direla, Komantxek gora egin dezan, eta hau OAMarekin batera egin behar dela, Komantxe eta okupazio mugimenduaren arteko sinbiosi bat lortuz, gaztetxeekin harremana ez galduz eta datorrenera moldatuz.

Batzuek, baina, ezin omen dute **ARDURARIK** hartu Komantxe berpizteko. Beste batzuk ordea, jendea erakartzen saiatuko direla edo konpartsan gehiago inplikatu direla diote. Ea egia den... animo! Badago ardurarik gabeko beteranoen taldea sortu nahi duen baten bat. :)

B profila

Konpartsakide berriak eta azken 5 urteetakoak

KONPARTSAN SARTZEA

KMTX-ko erradiografia honetan parte hartu duen 2. talde honen **ASMOA** edo motibazioa konpartsan sartzera honakoa zen: gaur egun eskaintzen den **Jai Eredua** landu **eta defendatzen** duen kolektibo baten egotea. Hau da, Aste nagusian **Herrikoitasunaren ikuspuntua jorratzea, autogestioa, okupazioa eta horizontaltasunaren (asanblearismoa) bidetik.**

Hori dela eta, konpartsako kideekiko **gertutasun ideologikoa** eta asmo politikoak erreferente bat dira Konpartsan sartzeko unean.

Beste konpartsen artean **KMTX AUKERATU** dutenek **laguntasunagatik** egin dute. Barruan **jende ezaguna izateagatik**, kanpora begira planta gutxien egiten dituen konpartsa izateagatik eta **gertutasun politiko-ideologikoagatik.**

AURREIKUSPENAK

KMTX ETA OAM-AREN ARTEKO HARREMANA estuagoa zela uste zuten, konpartsan sartu aurreko irudiak hori esaten baitzuen, KMTX-k **gaztetxeen okupazioa** sustatzen zuela, OAM-aren sustatzailea omen zela. Elkarlan handiagoa egongo zela espero zuten.

Baina sartu eta gero, argi geratu da KMTX Aste nagusian isolatua geratzen dela OAM-etik.

Hala ere, argi daukate konpartsaren **HELBURUAK** okupazio mugimendua ikustarazi eta babestea direla. Gune aske bat izatea, elkarrekin lan egiteko, saretzeko, laguntasunak elkartzuz, OAM-ak euskarri ekonomiko bat eta bultzada bat izan dezan.

Konpartsa bat mantentzeak dakarren **LAN-KARGARI** buruz oso gutxi imajinatu zezaketen kanpotik, eta karga burokratikoa (federakundeko koordinazioak eta ardurak) askoz ere txikiagoa izango zela uste zuten. Uste dute konpartsaren gaurko lan gehiena BKetan parte hartzeagatik eta Federakundean egoteagatik dela.

Galdetuen aurreikuspenak bete ote diren galdetzean, "gutxi gora behera" erantzuten dute. Batzuek hasieran OAM-arekiko harremana handiagoa zela uste zutela diote eta beste batzuk uste baino handiagoa dela diote.

ORAIN

Zalantzarik gabe, 2. talde honetako partaideak, gaur egungo funtzionamenduan sartuenak dira, bai konpartsaren egunerokotasunean, bai bere kudeaketa osoan. Talde honetako ia partaideen osotasunak **HARREMAN** estu bat dauka gaur egun konpartsarekin.

KONPARTSAKIDEEN ARTEKO HARREMANAK osasuntsuak direla uste dute, orokorrean, nahiz eta noizean behin konfrontazio egoerak ematen diren. Eskola zaharrak bidea markatzen jarraitzen duela deritzote, nahiz eta arduren zamak eskuz aldatzen ari diren. Barne transformazio prozesu bat ematen ari dela uste dute, transferentziatzkoa. Jende berria ardurak hartzearen bidean dago.

Oro har, konpartsaren **ERABAKIEN** parte sentitzen dira, eta ikuspuntu herrikoï batetik hartzen direla uste dute, eta orduan ordezkaturik sentitzen dira. Badago aldiz, bere parte hartzerik gabe erabakiak hartzen direla deritzona, baina ez duela bere burua zilegi ikusten konpartsari aurpegitatzeko, eta uste du haxe landu beharko litzatekeela.

KIDEEN ETA OKUPAZIO MUGIMENDUAREN ARTEKO HARREMANA, beraren kontsumokoa dela dirudi. Eskaski antolatua eta bat-batekoa bezala definitu daiteke. Bestalde, badaude sortzen diren proiektu okupatuetan parte hartzen saiatzen direnak.

Konpartsa OAM-aren erreferente bihurtu daitekeela uste dute, kideen arteko elkargune bezala eta konpartsa bera mugimenduaren sarearen parte izanik.

Konpartsa, eskatzen duten Gaztetxeen laguntzailea izan daiteke eta mugimenduaren finantziatorako euskarri bat izan ahal da.

GEROA

Badirudi Konpartsa Aste Nagusitik haratago ez dela pasatzen. Hasierako helburuetatik at geratzen ari dela uste dute B profileko kideek eta helburu politikorik gabe dabilela. Indarrak behar omen ditu aurrera jarraitzeko eta erradiografiaren ondorioen eta azalpenen zain daudela diote. Baliteke ere, beste mugimendu askoren moduan, hauxe pikutara joatearen bidean egotea.

Okupazio Mugimenduarekin lotuagoa egon beharko lukeela deritzote eta gutxiago BK-ri, baina erantzun honetan ez datoz denak bat.

ALDAKETARAKO AUKERA moduan, jai-eredua eztabaidatu eta inertzien aurka borrokatzea proposatuko luke gehiengoak. Federakundearekiko harremanak moteltzen gaituela uste dute eta ideia ona litzateke OAM-eko kide gehiago lotzea konpartsa erakargarriagoa eginez.

Azkenik, Mugimendutik desfasatuak geratu garenaren inpresioa dago eta ez dugula harrapatzen. Hauxe birpasatu beharra daukagu gaurko konpartsakideen inplikazioa landuz eta gazte berriak lotuz.

C profila

Okupazio eta Autogestio Mugimenduko eragileak

(gaztetxeak, gazte asanbladak, okupak, kolektibo autonomoak...)

Galdetegi hau, historikoki elkar-afinitatea garatu dugun kolektibo eta asanbladei zuzenduta dago, euren iritzi, ikuspuntu eta proposamenak jaso nahian. Bertan, guk nahi baino eragile gutxiagok parte hartu du, batez ere gaztetxe eta gazte asanbladen partetik. Parte hartzea proposatu diegun Bilbo inguruko gaztetxe eta gazte asanbladetatik, lauk soilik hartu dute parte. Eta lau horietatik, 1 ez da Bilbokoa eta besteek galderen erdia erantzun dute. Horietaz gain, autogestioa eta okupazioa zabaltzen diharduten beste 4 kolektibo hartu dute parte.

Nahiz eta gure aurreikuspenak (parte hartzearen aldetik) ez diren bete, esan beharra dago erantzun dutenen artean, kritika garatu, egoki eta errealak jaso ditugula. Batez ere, adin-tarte eskarmentatuagoa biltzen duten kolektiboetatik.

Jarraian datorren idazkian, parte hartze eskasaren inguruko gako batzuk nabarituko ditugu, okupazio mugimenduaren egoera ahularen arrazoiak lerro artean irakurri ahal izango dira, eta mugimenduarekiko, zein jai esparru herrikoiekiko jarrera eta proposamenen norabide posibleak adieraziko dira.

BILBO MAILAKO JAI ESPARRU HERRIKOIEI KRITIKA

Orokorrean, **BILBO MAILAKO JAI ESPARRU HERRIKOIAK** gero eta **instituzionalizatuagoak** daudenaren inpresioa dago. Bai, herritik sortu zirela badakigu, baina gaur egun kontsumitzaile hutsak izatearen susmoa dago, Bilbo hiriaren isla bezala eta beraz, **herrikoitasun hori berreraikitzeare dagoela**. Zentsu berean, profesionalgiak bihurtu omen dira gure jaiak, espezializatuegiak eta horrek atrakzio turistikoko baten itxura ematen dio. Alde batetik, agian, **instituzioak**

direlako gure ekintza markoaren jabe, eta bestetik Herri mugimenduak pairatzen duen ahuleziagatik. Hiriaren antzera, eragile sozialek ere kapitalaren mentalitatea bereganatu dutela uste da eta jai herrikoiak kontsumo-merkatuaren birprodukzioa bezala existitzen dira.

Honen guztiaren ondorioz, Bilbo Mailako Jai Esparru Herrikoiak **masifikatzearen bidean** daudela deritzote, **ikusbizunkeria** sustatzen dela, **auzoen zapalketa** gauzatzen dela erdigunea lehenetsiz eta **gustuko ez dugun moduan izatera bultzatzen zaigula** iradokitzen dute elkarrizketatuek.

Hala ere, aipagarria da, kolektibo erantzuleen laurden batentzat, jaiak herrikoiak izaten jarraitzen dutela, santomasak izan ezik, hori guztiz galduta omen dago eta.

ASTE NAGUSIARI BUELTAKA. Bloke honen bigarren atalean, nahiz eta Jai esparruekiko iritzia nahiko ezkorra den, Aste nagusiak dituen alde onak eta txarrak bereizten dira. **Alde onen** zerrendan, **ikusgarritasuna, finantziarioa eta harremanak** hartzen dira zutabetzat. **Alde txarren** zerrendan aldiz, **eredu kapitalistaren birproduktueak** hartzen du lehen postua.

Nahiko hedatua dago **Aste nagusia Herri Mugimenduarentzat hegemonia esparru bat** dela, non astebetetz kalea eta espazio publikoa okupatu zein ikusgarritasuna bereganatzen duen. Bide berean, aste horretan garatzen diren **harremanak** (aztertzeke legoke harreman horien kalitatea eta iraungitzea), **kontraboterearen elkargunea** (kontrabotere horren egituraketa eta jarraitasuna era aztertzeke) eta doako aisialdi eskaintzak, egunean zehar gozatzeko eta erreferenteak sortzeko aukera ematen dute. Horrez gain, Aste nagusiak eragile askorentzat **erresistentzia kutxa** moduan funtzionatzen duela dirudi.

Aldi berean, kontraesanek arrakala handiak sortzen dituztela adierazi dute. Aste nagusia gero eta munstro kapitalista baten itxura handiagoa hartuko luke (eredu kapitalistaren birproduktzea, baina modu perbertsoago baten, herrikoitasunaz jantzita). Izaki honek, **drogen merkatu-industriaren menpekotasuna** nabaritutuko luke, alkohol eta drogen gain-erabiltzeari esker, **gero eta despolitizatuagoak** dauden jai herrikoiei egingo lieke bidea, non eragile sozialek kapitalaren

mentalitatea bereganatu lukete eta hauei ekintza-markoaren jabegoa ukatuko zitzaien.

Guzti honen ondorioz, gaitz ugari azaltzen dira gure jai esparru herrikoietan, haien artean, eta ez errepikatzeagatik, **euskal kulturaren eta militantziaren folklorizazioa, erasoen ugaritzea** (nahiz eta lan handia egiten den hauen kontra, jaien tamainak ere hauek sustatzen ditu), zabor kantitate handiak, eta **komunikazio politikorako zailtasunak**, eztabaidek eta gatazkek azaleratze eskasa izaten baitute.

OKUPAZIO ETA AUTOGESTIOAREN MUGIMENDUAK HONETAN ZER? OAMaren erantzukizunaz galdeturik, erantzun gutxiren artean, jarrera argi batzuk agertu dira. Espazio arrotza bihurtzen ari den arren, **espazio hori borrokatzearen alde agertzen dira**. Analisia eta kritika sakona egin behar da antza, **eredua kritikatzu eta errefusatu, baina lubakia abandonatu gabe**. Hori bai, norabidea oso argi izanik, hau da, **herrikoitasunaren defentsa-garapena**, jaien instituzionalizazioaren kontra borrokatzea eta kontraboterea eraikitzea.

Dena den, borroka **hori gauzatzeko** ideia urri batzuk baino ez daude: okupazioaren mezua aste nagusian zabaltzea ekintzen bitartez, **esperimentatzea, auzoetan presentzia handiagoa** izatea... eta batez ere, **KMTX-rekin edo KMTX gabe, OAM-ak presentzia handiagoa** izan behar duela. Eta galdera bat airean, **OAM-rik ez badago, zer?**

EKARPEN BEREZIRIK EGITEN AL DIO KMTX-K ASTE NAGUSIARI? Gehiengo zabal batek baietz, herrikoitasunean eta parte hartzean ekarpen handiak egiten dizkiola deritzo. Bere puntu indartsuenetariko bat **programazioaren irizpide nabarmengarri ona** izango genuke, **borroka ezberdinen azaleko babesak** jarraitua (Irola eta Herri azoka adibide argiak dira baita programazioari dagokionez) eta **Gune Okupatuak** modu argian defendatzen duen espazio bakarra izatea. Honek guztiak **espazio eroso bihurtzen du txosna konpartsarik gabeko kolektibo aliatu** eta norbanako militanteentzat.

KMTX-k parte hartzean ere, baina oso neurri txikiago baten, ekarpenak egiten dituela deritzote. Sareak sortzeko, adierazteko gune bat eskaintzen duela,

konpartsakide izan gabe ere erraza dela laguntzea eta borrokatzeko gogoak pizten dituen konpartsa bat dela aipatzen da.

Hala ere, guzti honek baditu bere zailtasunak, batez ere, kalitatean eta jarraikortasunean. Izan ere, espazioan konpartsak eta txosnak duen ikusgarritasun eskasa aipatzen da, hala nola okupazio egunari etekin politiko txikia ateratzen zaiola eta egun horietan sortzen diren harremanen azaleko izaera.

KMTX ETA OAM-AREN ARTEKO HARREMANA

ZELAN DAGO OAM-a? Galdera zuzena eta introspektiboa da hau, eragileek OAM-aren parte diren heinean eta honen moduko eragileekin saretzen diren heinean, irudi heterogeneo eta orokor bat lortzea da helburua.

Orokorrean, mugimendua **ahulezi egoeran baina potentzial handikoa** dela deritzote parte hartzaile gehienek. Hau da, **mugimenduaren egituraketa eta dinamika ez dela existitzen** argi geratzen da, baina bestalde, egituratuta balego, **inguruko baldintzak ezin hobeak direla** ulertzen da.

Honetan sakonduz, ahuleziaren arrazoiak lirateke: alde batetik, **ez dago mugimenduaren antolakuntzarik**, ezta etxebizitza okupatuen mugimendu organikorik. Antolakuntza eza horri gehitzen badiogu **gazte mugimenduak ez duela okupazioa ardatz gisa** lantzen eta ez dagoela okupazioaren ikuspegi integral bat, zera ondorioztatu dezakegu, **identitate garatu bat** egon **badagoela**, okupazio mugimenduaren inguruan, **baina subjektua ez dela existitzen**. Subjektu falta hori, gazteen errelebo faltagatik, inplikazio orokorragatik, motibazioengatik, edo agian, ahultasun ideologiko batengatik izango litzateke.

Baina den-dena ez da txarra, **azken urteetan gune berriak** ireki eta mantendu direlako. Nahiz eta Bilbo mailan alternatibarik ez dagoen, **auzo mailan** ugari eta indartsuak ematen ari dira. Okupazio Bulegoa, indartsu dabil eta lan duina egiten du, Okupazioaren diskurtsoak inoiz baino babes handiagoa dauka. Gainera,

bateragune eza horrek, **beste diskurtso batzuei** ere egin die lekua, gune ezberdinen ardatz bilakatuz, hala nola, hiri ereduari kritika, edo feminismoa.

ZERTARAKO DAGO KMTX? ZEINTZUK DIRA BERE FUNTZIOAK OAM-an? Hurrengo hiru atalek, antzekoak direnaren irudia eman dezakete, baina, egia esan, helburu ezberdinak zituzten, funtzioak, ekarpenak eta harremanak aztertu nahi ziztuzten atalka. Parte hartzaile askok aldiz, hiru ataletan antzeko erantzunak eman dituzte. Hona hemen gure nahasketa.

Funtzioa nagusiak: **ekonomikoa, saretzea eta ikusgarritasuna dira.**

Ekonomikoki, KMTX-k proiektu askoren eraketan lagundu duela jakina da, adibidez bulegoa finantzatzuz, kideen kolegiaturak bermatuz.

Saretze lanetan aldiz, elkarlan faltagatik, **KMTX mugimendutik isolatua geratu denaren susmoa dago.**

Ikusgarritasunari dagokionez, topaketarako lekua dela txosna, eta konpartsa, defentsarako baliagarria izan daitekeela, baita kontsultarako, baina, tamalez, ezjakintasuna dagoela konpartsaaren funtzioen inguruan kolektibo askotan eta horrek ez du harremana sortzen laguntzen.

ZEINTZUK DIRA KONPARTSAK OAM-ri EGITEN DIZKION EKARPENAK? Esan bezala, funtzioak nahiko argi ikus daitezke, batez ere baliabide-azpiegitura kontuei erreparatuz. Galdetuetako guztiak ados daude horretan, batez ere konpartsa duen banku funtzioari buruz.

Saretzearen atalean, auzolanetarako eskuak eskaini beharko lituzkeela, ikusgarritasun handiagoa lortzea, eta bide batez, borrokaren potentzialitatea neurtzea.

ZERTARAKO KONTATZEN DA KMTX-rekin ETA BERE KIDEEKIN? Guztiek baliabideak lortzeko KMTX-ra jo dutela aipatu dute. Bai ekonomikoki edo azpiegituran laguntzeko.

Politikoki aldiz, askoz gutxiago, kolaborazio gehienak, puntualak, txandetan edo muntai lanetan izan direlarik.

HARREMANAK KMTX-ERAGILEA Kasu honetan, harremanak estu eta puntual arteko parametroetan ezarri dituzte. Harreman estuenak dituztela adierazi dutenek, elkarrekiko maitasuna, aholkularitza, txosnako tragoak eta txandak aipatu dituzte. Harreman puntualagoa dutenek ordea, harreman pertsonalik egon ezean, eragileak ez duela harremanik diote eta kontaktua badagoela, baina ez harreman iraunkorrik.

KONPARTSARI KRITIKAK Oro har, eta beste kritiken gainetik, konpartsaren isolamendua kritikatzan da. Errealitatekin at omen dagoela, eta Aste Nagusiaz haratago jo beharko lukeela Konpartsak. Beste kolektibo batzuekiko harremanak estutu, eta Gaztetxe eta gazte asanbladetikiko urruntasuna ezabatu. Potentzial handia duela konpartsak balizko Okupazio Mugimendu batentzat, baina konpartsakide militante gutxi dituela.

Bigarren maila baten, eta modu estetiko-politikoan, kolonialismoa egozten zaio konpartsari. Izena eta mozorroen kontua begiratu behar dela eta apropiazio kulturala ekidin (*está feo lo de vestirse de indio*). Konpartsak gehiago arriskatu eta esperimintatu beharko lukeela, Okupazio Mugimenduaren benetako erakusleihen bat izan dadin eta finantziarioa ez izateko bere ezaugarri handiena, adibidez, jai guneko esplotazio egoerak salatuz, eta barne zein kanpo formakuntza gehiago sustatuz.

Eta hirugarren maila baten, baina ez horregatik garrantzia txikiagokoa, gardentasun falta. Bai bere funtzionamenduaz zein bere erabakien nondik norakoaz. Adibidez, erradiografia honen ondorioz hartuko diren erabakiak argitaratuz.

Hala ere, dena ez dela perfektua badakigu, eta behintzat KMTX-n oso jende jator eta zintzoa dagoela azaldu dute. Benetako lehengai zoragarria!

Atal honetan, KMTX-ren balizko eboluzio baten inguruan galdetzen zaie eragileei. Hobetzeko tresnak, etorkizunerako funtzioak, bete beharrak, elkarlanak, helburuak eta komunikazio - koordinazio bideak hausnartzen dira.

KONPARTSA BERRI BAT SORTU Konpartsa ereduaren inguruan galdetuta, heren batek dio ezin duela beste konpartsa eredu bat imajinatu. Beste batzuk, aldiz, ez dela beste bat behar diote, konpartsa eredu honek, agian legalitatearen eta okupazioaren arteko zubia dela, eta gainera, BK-k konpartsa eredia baldintzatzen duela.

Konpartsa berri bat sortu behar balitz, hoberako ideia sorta bat batu dugu erantzunen artean: lehenik eta behin, OAM-ean parte hartze handiagoa izango lukeen konpartsa bat sortzea, desalojoen kontrako protokoloak garatuz adibidez, eta 9 eguneko bozgorailua izanik Aste Nagusian. Finantziarioaz aparte bestelako helburuak markatuko lituzkete, banku itxura gutxiago izanik eta ekintza gehiago burutuz.

“Kuadrillismoa” gaindituko lukeen konpartsa bat, planteatzen da, irekiagoa, askeagoa, horretarako, konpartsaaren sarbideak argitu, erraztu, biderkatu eta zabaldu.

ZEIN EKARPEN EGIN BEHAR LIZKIOKE KMTX-K OAM-ari? Proiektuen eta norbanakoen harremanak sustatu beharko lituzke, mugimenduaren aglutinatzaileak izanik. Orokorrean, antolakuntza falta hori sumatu egiten da mugimenduan, eta konpartsak horretan funtzio bat bete beharko lukeela, komunitatea eraikiz eta kudeaketatik aldenduz. Funtzioak kentzeaz urrun, ikusgarritasuna eta finantziarioa bermatu beharko lirake.

Horretarako, konpartsak komunikazioa ahalbidetu beharko luke, gaztetxerik ez duten gazte asanbladekin ere harremana sortu, konpartsakideen konpromiso politikoa indartu, eta modu aipagarri baten, okupazio mugimenduaren esperientziak partekatu.

KONPARTSAREN GARAPENA Gehienek ideiarik ere ez dutela onartzen dute, eta soilik, erradiografiaren galderetan oinarriturik, konpartsa testuingurura doitu dela uste dute, kapitalak bereganatzen ez badu lehenago, beste batzuekin gertatu den bezala.

KMTX-ERAGILEA HARREMANAK SUSTATZEA Eragileen erdiak, elkarlaguntzarako prest agertu dira, proiektuen arteko infoak banatuz eta koordinazioa sustatuz. Beste batzuk ordea, konpartsa bilakaerara baldintzatu dute euren elkarlana.

KMTX-OAM KOORDINAZIO-KOMUNIKAZIO MODUAK Aurreko gaiarekin jarraituz, harreman horiek gorpuzteko ideien inguruan galdeturik, ikuspuntu desberdinak agertu dira.

Badaude, KMTX azpi-organo bat izan behar duela deritzotenak, gehienak gainera. Azpi-organo horrek, tresna eta baliabideak erraztuko lituzke eta GAS-arekin harremana estutu. Ez lirateke komunikazio esparruak bikoiztu behar, baina okupazio mugimenduaren koordinazio tresna bat sortzen lagundu beharko luke. Badago ere, kontrakoa diona, eta KMTX-k mugimendua koordinatu eta gorpuztu beharko lukeela dioena.

Bestalde, barne mailan, kide berriei lekua egin beharko lieke konpartsak, gaztetxeetako kide berrien sarrera bilatuz, auzoetako jaietan parte hartu, eztabaiden ondorioak gardenak izanez eta aktibitate-tailer, elkargune gehiago antolatuz harreman horiek sustatzeko.

Ikerketa hau, ideia on bat izan da horretarako.

Lantaldeak ateratako ondorio batzuk

PARTE HARTZEAZ

Hurrengo taulan ikusiko den bezala, parte-hartze osoa %31akoa baino ez da izan. Horrek irakurketa ezberdinak dauzka, baina argi utzi nahi dugu **lan talde honek bere eskuetan zegoen guzti-guztia egin duela parte hartzerik handiena sustatzeko**, hots, zerrendan agertutako kide guztiak telefonoz eta emailaz kontaktatu (aurpegira izaten ez zenean) elkarrizketetan edo emailaz parte hartu zezaten. Horregatik, parte hartzea izandakoa izanik, nahiago dugu pentsatzea konpartsaren erabakietan eragitea ez dela euren lehentasunetako bat izan. Hala ere, jakin ezazue, **faltan bota ditugu zuetariko asko**, bai beteranoak, bai berriak, egin eta egiten duzuen lanagatik, zareten erreferenteagatik.

profila	e-mailez*	zuzenean	totala	%31
A	16 p	6	22 (80tik)	%27,5
B	5 p	7	12 (35tik)	%34
C	8 K	---	8 (20tik)	%40

P pertsonak dira eta K kolektiboak. Ez dakigu kolektibo bakoitzeko zenbat pertsonak hartu duten parte.

Bestalde, elkarrizketetan eta jasotako erantzunetan, sakontasuna, aniztasuna eta zintotasuna nabari dezakegu. Honegatik, **eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi**, plazer bat izan da zuekin prozesu hau partekatzea.

KMTX-ren IZAERARI BURUZ

A eta B profilak kontrastatu ostean, hainbat idei orokor argiak atera ditugu, hau da, bi profiletan errepikatu diren ideiak dira, edo nolabait ados datozela euren artean.

ASMOAK aztertzean, konpartsa sortzekoak estuki loturik zeudela ikusi dezakegu uneko BOM-arekin, eta mugimendu horren indar eta gogoekin. **Bi profiletako konpartsakideek adierazi dute mugimendu horrekiko, edo identitate horrekiko afinitateagatik batu zirela konpartsara**, eta azkenengoak agian, mugimendu horren faltagatik (gaztetxeetan ez dute militatzen, adinagatik)

HELBURUAK. Aipatu diren helburu guztietatik, **soilik helburu ekonomikoa nabarmentzen da bere betetzeagatik**. Mugimendua **sendotze lanetan, eta saretzean aldiz**, erradiografia honen erantzunak kontuan hartuta **huts egin dugula** baieztatu dezakegula dirudi. Horren arrazoiak, BOM-aren desagerpena eta hortaz, gune okupatuekiko zein gazte asanbladetatik urruntzea izan daitezke, hala nola, jendearen erretiratzea, errelebo falta edo hitz gutxitan esanda, mugimendua osatuko luketen eragileen (gu barne) arteko harreman faltagatik.

Bete ez diren helburu horietatik, soilik aldi baterako edo ezaugarri estetikoetan zentratu garela. Txosna topagune bilakatu dugu, baina ez konpartsa. Gaztetxeen erakusleiho izan da txosna, baina ez dugu mugimendua sendotzen lagundu.

Gaur egun, **KMTX balizko mugimendu batetik isolatua** legoke, non **OAM-a ere gorpuztu eta antolatze beharretan** legokeena.

KMTX-ren ERRONKEI BURUZ

B profila soilik aztertzean, zera aurkitzen dugu, *nahiak eta helburuak* argi daudela, baina moduak edo *nola* falta direla. Horretarako C profilak, ideiak eta kritikak egiten ditu.

Bilbo Mailako Jai Esparru Herrikoiak eta OAM-a izanik konpartsaren 2 ardatzak, hauekiko iradokitzen diren norabide batzuk ondorioztatu ditzakegu, beti ere konpartsaren izaerarekin bat.

JAI HERRIKOIAK. Jai Herrikoiei kritika gogorragoa omen da orokorrean. Bai konpartsakideek zein OAM-eko kideek bat datoz **jaien masifikazio, instituzionalizazio eta ikuskizunkeriarekin, hau da, herrikoitasun faltarekin eta topagunean ematen diren harremanen kalitate eskasarekin.** Horretarako, ereduari kritika sakona egitea, esperimentazioa eta erradikalizazioa proposatzen dute. Eta bide honetan, **helburuen lehenestea eta taktika berriak aztertzea tokatuko zaigu.**

OAM. Argi dago ahul dagoela bere antolakuntza eta gorputz faltagatik. Diagnostiko honetatik ondorioztatu daitezkeen galderetako batzuk lirateke, KMTX-k horrekiko duen arduragatik, bere bidea nola moldatuko duen, **zer erabaki hartuko eta tresna sortuko dituen okupazioaren eta autogestioaren konpartsa izaten jarraitzeko.** Bide berean, zein neurriraino hartuko duen ardura, hau da, **OAM-a ordezkatu gabe, hura sustatzeko eta bere tresna izatera pasatzeko berriro.**

Orokorrean eta labur, **indarguneak, ahulguneak, mehatxuak eta aukerak** aztertzean, hurrengoak ateratzen zaizkigu: indargune bezala, 12 urtetako esperientziak, gure independentzia, inguruan dauzkagun lagunak, baliabideak lortzeko ahalmena eta erreferentzialtasuna daukagu, **gauzak egiten badakigula,** hain zuzen; gazte-errelebo falta eta **mugimenduarekin harreman eza** dira gure ahultasunak; motibazio falta, **Bilbo hiriaren inertzia kapitalisten birproduzitzea** eta beste konpartsa batzuen antzera gertatzearen mehatxua daukagu kokotean; azkenik, aukeren artean, esperimentatzean gozatzea, gauzak modu ezberdinetan egiten saiatzea, laguntasun berriak egitea, Jai Herrikoien inguruan ematen diren eztabaidak, Hiriarekiko kritika sustatzea, deskolonizazioa, autodefentsa eta feminismoaren **diskurtso erradikalek duten potentzialitateak askatzea.**

Ez da makala aurretik daukagun lana, ezta? Ekin dezagun gogotsu eta zintzo, okupazioaren aldeko eta autogestioan oinarritutako sare indartsu baten alde!



KOMANTXE KOMPARTSA

ASANBLADA herrikoitasuna
IDENTITATEA/SUBJEKTUA auzoak defendatu
jaia nahiak komunitatea kide
KONPARTXE autogestioa hiria **feminismoa**
AUTONOMIA erreferentea *dekolonizazioa* motibazioa
anti-txosna **GATAZKAK OKUPAZIOA** **BOM**
MARIJAIA
KONPROMISOA transmisioa *zintzotasuna*
ZAINZA KOLEKTIBOA **GAZTETXEAK**

GAZTAIN GUZTIAK JASOAK
DIRA, EGOSTEKO ORDUA DA.